



Satur Eleta Lehiaketan 11 leitzar saritu dituzte

LEITZA ▶ 8 kategoria ezberdinetan saritu zituzten iragan larunbatean Lekunberrin eginiko lehiaketan


MAILA ALTUA ▶ Aralar Musika Eskolako irakasleek lehiaketako «maila polita» nabarmendu dute ▶ 7

TOLOSA ▶

Hastear da Zerkausian, Arrautzaren Festa

Bihar hasiko da eta igandera arte iraungo du ▶ 3

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶



Iazko irabazlea. IÑAKI GOMEZ

Abian da V. HITZA Argazki Lehiaketa

Aste Santuko argazki hoberena sarituko dugu ▶ 2

ASTEASU ▶

III. Euskal Giroa egingo dute larunbatean

Herri kirolak izango dira, besteak beste ▶ 5



Ohitura zaharrak berreskuratzeko, gurutze berriak

GAZTELU ▶ Gaztelura gerturatzen direnek berezitasunik nabaritu dute egunotan. Izan ere, herriko «ondare historiko eta kulturalak» berreskuratu nahian, Gazteluko Udalak Tomas Ugartemendiak egindako bi gurutze berri jarri ditu. Hain zuzen ere, azken berrikuntzak orain dela bi urte egin zituzten, auzolane-

an, kalbarioa errekueratze lanen baitan. Gurutze hauek gurutz bidea osatzen dute; tradizioaren arabera, gurutz bidea bertan eginez gero, grazia edo mesede gehiago eskura omen zitekeen. Gurutzeak dauden lekuan, lehen Santa Kruz ermita zegoen, 1647. urtean eraikia. **ASIER IMAZ** ▶ 6

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

ERREDAKZIOA

Egun gutxi falta dira Aste Santua ailegatzeko eta hasi beharra dago argazki kamerak zorrorik atera eta hauei etekina ateratzen. Eta nola ez, erretratu ikusgarri, gogoangarri, esanguratsu eta berezi horiek saritzeko hemen da V. HITZA Argazki Lehiaketa.

Datorren asteartetik aurrera hasiko gara jasotzen argazkiak. Hauek, Euskal Herrian nahiz atzerrian ateratakoak izan daitezke, baina hori bai, aurtengo Aste Santukoak. Gaia ere zuek aukeratu ahal izango duzue: kultura, ohiturak, paisaiak, pertsonaiak... Baina hori bai, parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du. Nola ekarri gure eskuetara argazkiak? Oso erraza da, hiru aukera dituzue. Lehendabizikoa internet erabiltzea gustuko dutenentzat: posta elektronikoz bidalita tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera. Posta arrunta erabiltzea nahiago dutenentzat berriz, argazki lehiaketarako dela zehaztuz kartazalean, hau TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa 20.400 helbidera bidali behar dute. Eta azkeneko aukera zein den?, Hitzaren egoitzetara ekartzea, bai lehen aipatutakora edo Leitzakora. Beraz, ez dago aitzakiarik parte ez hartzeko.

Sari potoloak

Behin argazki guztiak eskuratuta ondoren, hau da, apirilaren 25ean, bozketari ekingo diogu. HITZAK aukeraturiko epaimahaiak lehendabizi zortzi finalistak aukeratuko ditu, eta hauen izenak hilaren 28an emango dira ezagutzera. Hortik aurrera irakurleen txanda izango da, beraiek izango baitira epaile, telefono bidez edo posta elektronikoz aukeratu ahal izango dute argazki irabazlea.

Bozketan parte hartzen dutenen artean HITZAKO materiala zozketatuko da. Hala ere, sari potoloena argazki lehiaketara irabazleak eramango du. Villabonako Bidaide bidaia agentziak eskainita, bi lagunentzako lau egunetako bidaia zoragarri bat eskuratuta ahal izango du erretratu aukeratuaren egileak. Bi lekuren artean aukeratu ahal izango du garaileak, barnealdearen eta kostaren artean, Errioxa edo Kantabria artean, hain zuzen ere. Bigarren postuan geratzen denari berriz, HITZAKO materiala oparituko zaio. Dena den, gaintzeko lehiakide guztiak ez dira esku hutsik geratuko, hauen artean ere nikiak, motxila... zozketatuko baitira.

Argazki makinari etekina ateratzen hasteko garaia da

Hilaren 10an hasiko da bosgarren edizioa; Bidaide bidaia agentziaren bidaia zoragarri bat eskuratuko du irabazleak



Turkiara egindako bidaian ateratako argazkia bidali zuen Nerea Lopetegik IV. HITZA Argazki Lehiaketan. N.L.

V. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

EPEAK

- ▶ Argazkiak bidaltzeko denbora hil honen 10etik 25era bitartekoa izango da.
- ▶ Hilaren 29an aukeraturiko zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- ▶ Maiatzaren 6an irakurleek aukeraturiko argazki irabazleak argitaratuko da. Bozkatzeko epea maiatzaren 4an amaituko da.

BALDINTZAK

- ▶ Argazkiek Aste Santuko oporraldikoa behar dute izan.
- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazkiak digitalek, gubxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 8 zentimetrotako zabalera eta 250eko bereizmena.



Hitzako materiala. E. EZEIZA

- ▶ Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den adierazi beharko da, eta zer ikusten den ere labur idatzi.
- ▶ Jasotako argazkiak artxiboa gordeko ditugu, eta HITZAK

behar dituzenean argitaratu ahal izango ditu.

- ▶ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- ▶ Argazkiak guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.
- ▶ Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du.

SARIAK

- ▶ Bidaia zoragarri bat oparituko dio Villabonako Bidaide bidaia-agentziak, bi lagunentzat, argazki onenaren saria eskuratzen duenari.
- ▶ Gaintzeko partaideen artean HITZAKO materiala zozketatuko da. Botoa ematen dutenen artean ere zozketa zabalak egingo dira.

TOLOSA ▶

Turismoko Sari Nazionala irabazteko aukera ugari

Ostiralean amaitzen da bozka emateko epea; internetez edo telefonoz egin daiteke

E. EZEIZA

Turismo kateak (CTT) Turismoko Nazional Sariak antolatuta ditu. Turismoa sustatzea helburu duen telebista kate honek, udaletxeek eta sail honetako enpresek arlo honetan egiten duten lana ikusi ondoren, beharrezkoa ikusi du hau eskertzea. Hori dela eta, sariketa berri hau presatatu du.

Tolosa lehendabiziko aldiz, sariketa honetako bigarren postuan da, eta irabazteko aukera ugari ditu. Lehiaketan kategorioa edo maila ezberdinak daude, eta Tolosa ondarea ongi zaindu eta mantentzeagatik dago sailkatua. Tuter eta Tolosa dira Euskal Herriko aukeraturiko herriak, gaintzekoak Espainiar estatukoak dira. Martxoaren lehen egunetan hasi zen bozkatze epea, eta orduetik hona gero eta puntu gehiago ditu Tolosaldeko hiriburuak. Bozketak hasi zirenean, 14 hautagaietatik 10. zegoen bera, eta orain berriz bigarren da. Telebista katearen iturriek adierazitakoaren arabera botuen %70a internet bidez egin da, beste %17a telefono bidez, eta gaintzeko %12a sms bitartez. Datu hauek aztertuta, eta Gipuzkoan sortu duen zeresana ikusita, askoren iritziz, ez da zaila denbora gutxian sailkapeneko lehen postua lortzea Tolosak.

Bozkatzeko azken egunak

Lau egun besterik ez dira geratzen bozketaren epea amaitzeko. Dena den, katearen erabakiz, dagoeneko ezin dira ikusi orain arteko emaitzak.

Eroski Bidaiaiek Tolosako udaletxearen egitasmoari jarraituz, Nafarroa etorbideko bere egoitzako ordenagailuak utziko dizkie tolosar guztiei bozkatu ahal izateko.

Telefonoz botua emateko 905 43 30 71 zenbakira deitu behar da. Internet bidez egiteko www.canalctt.net wete-nuneean egin ahal izango dute interesatuek.

GASTRONOMIA ▶

Arrautzaren Festa motorrak berotzen

Bihar hasiko dira Zerkausion arrautza osagai duten menuak prestatzen; 900 lagun inguruk eman dute izena dagoeneko

INIGO TERRADILLOS

Bihar hasiko da Udalak «larunbateroko azokan produktu izarrretako bat den arrautza omentzeko helburuz» antolatu duen Arrautzaren Festa. Herriar guztiei irekia izango den festa honek igandera arte Zerkausia jatetxe handi batean bihurtuko du, Hernalde, Astelena, Beti Alai, Botarri, Fronton, Iriarte, Larrea, Sausta, Zuloaga Txiki, Iturrigoxo eta Divinus Catering-ek arrautza osagai dutela prestatutako menuekin. Postreak ere tolosarrek egingo dituzte, hau da, Gorrotategik, Casa Ezeizak eta Gorostik.

Bazkariak bihar, etzi, larunbatean eta igandean izango dira, 13:30etik 15:00etara, eta afariak, berriz, etzi eta larunbatean, 20:00etatik 22:00etara.

35 euro ordaindu beharko dira, eta gaztetoentzako prestatutako menu berezientzat, 10 euro. Izen-emateak 943 318 608 zenbakian edo erreserba@logika.es helbidean egin ahalko dira. Dagoeneko egin diren erreserbei dagokionez, 900 pertsona inguru izango dira; horietatik gehienak tolosarrak dira, beste asko Euskal Herriko puntu desberdinetakoak, eta badira baita ere Euskal Herriatik kanpokoak ere.

Jarduera desberdinak

Arrautzaren Festak jatetxe garrantzitsuek eginiko menuak eskaintzeaz gain, hainbat jarduerataz gozatzeko aukera ere emango du. Bihar eta larunbatean, esaterako, Zerkausion Marihue tailerra jarriko dute.

Tailer horretan, haurrek txotxongiloak egin ahal izango dituzte arrautza azalekin, Tolosako Ekinbide Etxeko Titirijairen laguntzarekin.

Etzi, Trianguloan su handi bat prestatuko dute, eta Kabi Alai elkarteak, Martin Berasategi sukaldariaren begiradapean, tortilla erraldoi bat egingo du. Prestatu ondoren, 12:00ak aldera, probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, ekintza honetarako aukeratu dituzten ardoekin batera.

Bestalde, Arrautzaren Festaz gain, larunbat goizean Tolosa Goxuaren XI. Edizioa antolatu dute. Bertan, gozogintzako eta pastelgintzako 35 postutan postre eta gozo tradizionalak egongo dira ikusgai eta baita salgai ere.

AZPIEGITURAK ▶

Tolosako saneamendua burutuko du Jaurlearitzak

ERREDAKZIOA

Gobernu Kontseiluak hitzarmen bat adostu du Ur-Par-tzuergoarekin Tolosako hiriguneko isurketak jasoko dituen Oria Erdiko kolektorearen zatia egiteko.

Obrak datozen hilabeteetan irtengo dira lizitazioa eta 18 milioi eurotik gorako kostua izango dute, oso osorik Eusko Jaurlearitzak bere gain hartuko dituelarik. Ekintza hau Eusko Jaurlearitzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailak saneamenduari dagokionez orain arte egin duen esanguratsuenetako bat da.

Kolektore zati hau Tolosatik ibaian gora, Benta-Haundi eta Arremale zubiaren artean jango da eta horri esker, udalerriko hiriguneko zati handienaren ur beltzak jasoko ditu.

Esther Larrañagak zuzentzen duen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila uneotan Legorreta eta Alegi lotuko dituen kolektore zatia, eta horri jarraitzen dion zatia, hau da, Alegitik Benta-Haundira doana egiten ari da. Berriki Araxesera isurtzen diren hondakin-urak jasotzen dituen adarra amaitu dute. Ekintza hauei beste bat gehitu behar zaie, Arrameletik ibaian gora Iruraraino hondakin-urak jasoko dituen kolektore.

Obra hauek guztiak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailak hartuko ditu bere gain eta 2008 urterako amaituko dira. Obrei esker Oria Erdiko hondakin-urak jaso ahal izango dira eta Foru Aldundiak Adunan eraikiko duen araztegia eramango dira.

PILOTA ▶

Beotibar zesta punta taldeko infantilak dira Gipuzkoako txapeldun berriak

ERREDAKZIOA

Joan den igandean jokatu zuten Beotibar pilotalekuan Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketaren finala. Beotibar taldeko arduradunen arabera, «txapelketa bikaina egin dute taldeko hiru pilotariak, Beñat Lopezek, Oier Zalduak eta Antton Telleriak, partidarik galdu gabe iritsi baitira finalera». Aurkari, Zumaiaiko talde «indartsua» izan zuten, Unai Urangak eta Josu Odriozolak osatuta.

Gauzak oso gaizki jarri zitzaizkion Beotibar taldeari, 2-11 galtzen jarri baitzen. Arrerago markagailuak 11-20 erakusten zuen. Hala ere, Beotibar taldeko pilotariak partidan sartu eta zumaierrei erantsi zieten. Aldea pixkanaka gutxitzen joan ziren eta partidaren hondarreen lortu zuten berdintzea lehenengo, eta ondoren azken tantoa egitea, markagailua 30-28 geldiaraziz, eta Gipuzkoako Txapelketari amaiera bikaina emanez.



Txapelketaren amaieran pilotariak garaikurrekin. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

SALGAI
Etxebizitza. Berazubi auzoan, pisu

eraberritua. Ikuspegi ederrak zezen plaza aldera. Ikusteko modukoa. 608 978 288.

Trikitixa. Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuak deitu 669 67 36 49 telefono zenbakira.

TXOTX

- Arratzain**
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 **Usurbil**
- Oialume Zar**
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**
- Gartziategi**
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**
- Iparragirre**
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 **Hernani**
- Urbitate**
Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**
- Gurutzeta**
Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**
- Akelenea**
Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 **Astigarraga**
- Lizeaga**
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 **Astigarraga**
- Elutxeta**
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 **Urnieta**
- Rezola**
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 **Astigarraga**
- Larre Gain**
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

GIZARTEA ▶

Mando-liburuzainaren bidez lotuak

laztik Samaniego herri ikastetxea
Kolonbiako Guillermo Leon Valencia
ikastetxearekin elkarlanean ari da

ENERITZ MAIZ

Proiektuak historia luzea badu ere, 2006. urte hasieran hasi zuten Samaniego Herri Ikastetxea, Cocuyo gobernu kanpoko erakundearekin elkarlanean. Honela, martxoan senidetze agiria sinatu zuten Kolonbiako eskolarekin eta urtearen bukaeran, proiektua Tolosako Kultur Etxean aurkeztu zuten.

Ikastetxeko ingurumen batzordean dauden guraso batzuen bidez izan zuten ikastetxeak Kolonbiako proiektu honen berri. Nekane Arsuaga irakasleak adierazi digunez «ikastetxeak proiektu globala du eta horren barruan, horietako bat ingurumena da. Ingurumena eta bizikidetzaren dela eta hauen proposamena oso ondo txertatzen zen gure helburuekin». Eta aurrera jarraitzeko erabakia hartu zuten.

Kolonbiar hauek, beren lekutik bi aldiz mugituak izan ziren: lehenik paramilitarren bortizkeriak eraginda eta ondoren, Guabas erreka bere bidetik atera zenean. Inguruko lur, etxe eta pertsona guztiak aurrean eraman zituztelarik.

Hondamen natural baten eta berak eragindako kalte material eta pertsonalen ondoren, herri ekimenari esker sortutako ikastetxea da Guillermo Leon Valencia. Kolonbiako Cauca haraneko Ginebra udalerria aurkitzen da.

Cauca haranean *Que viva la montaña* izeneko kooperazio proiektua garatzen ari da eta bere helburua birritan desplazatuak izan diren nekazari-familien bizi baldintzak hobetzea da. Hasiere batean, proiektuak

50 familia kokatzea lortu zuen, metodologia parte-hartzailea erabiliz, familia bakoitza bere etxe ekologikoa eraikitzeko gai izan zen, etxeak beraiek elkar lanean eraiki zituztelarik. Erabilita materialarengatik, uraren tratamenduagatik eta hondakinen erabileragatik, garrantzi berezia hartzen du proiektuak. Xabier Jauregi gurasoen ordezkariak hauxe kontatu digu «1.800 metrotara daude eta adibide bat jarrita, Benta Haunditik Urkizura igotzea bezala litzateke. Ez dago erreperiderik eta oinez igo beharra dagonez, ezinezkoa izan da materiala igotzea. Naturak berak ematen dituen materialekin egin dituzte etxeak, porlana kenduta, hau mandoen bidez igo zuten baina kantitate oso txikia izan da. Paretak lokatzarekin eginak daude».

Bigarrenaldi batean, Guillermo Leon Valencia ikastetxea eta haurtzaindegia eraiki ziren. Hirugarrenaldian, iraukorrak diren Unitate Familiarrak eraikitzen ari dira. Etorkizuna ziurtatzen duen nekazari proiektua da, komunitatearen garapena iraukorra izango baita.

Ikastetxeen senidetzea

Bi ikastetxeon ibilbidean, zenbait baldintzek eragin dute elkar topo egitea, nahiz eta, elkarrengandik oso urrutu egon. Topatze horretan, bi ikastetxeak hezkuntza eta filosofia ikuspegi berberak dituztela jabetu dira: elkartasunaren inguruan, ingurumenaren defentsan, dibertsifikazio errespetuaz baita genero ikuspegiarekin.

Bi ikastetxeek, elkarrengan-



Goian, etxe bat egiten. Behean, mandoen bidez materiala igotzen eta haurrak marrazkiak egiten. HITZA

dik ikastetxeko borondatea eta elkar ulertzea eragingo duen adiskidetasuna ezartzeko nahia adierazi dute. Bestalde, bi ikastetxeek, ardura edota betebeharrak batzuz zehaztu dituzte: eskola-materialak, ingurumenekoak, kultura esperientziak, eta informazioa trukakutako eta elkarbanatutako dituzte.

Samaniego herri ikastetxeak bere aldetik, diru laguntzak eta material didaktiko eta hezitzaileak biltzeko behar diren jarduerak antolatzeko ardura bere gain hartu du. Ondoren, Guillermo Leon Valencia ikastetxera bidaliko dituzte lortutakoak. Urte osoan zehar, 7.500 euro biltzeko nahia azaldu dute ikastetxetik eta Cocuyo gobernu kanpoko erakundetik.

Lehenengoa abenduaren 31ean antolatu zuten eta Elkartasun krosa izan zen. Xabier Jauregi adierazi duenez, «inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuela esan digute. Bestalde, sentsibilizazio moduan postu bat prestatu zen diapositibekin eta bertan bidetako merkataritzako produktuak saldu ziren, gehien bat kolonbiarrak izan zirelarik. Ho-

nez gain, saski solidario bat zozketatu zuten. Orohar, oso ondo aterata zen guztia».

Mando-liburuzaina

Mandoa, oso animalia preziatua da Cauca haranean, beraz baita garraiobide erabilgarria. Mandoen bidez garraiatzen dituzte behar dituzten gauzak eta Samaniego aurrera eramanez nahi duen proiektuan, mandoa izango da liburuak garraiatuko dituena. Nekane Arsuaga irakasleak argitu du zein den beraieen asmoa: «Oso behar handiak dituzte Kolonbiako, baina ikastetxerako, oso proiektu handia iruditzen zitzaien beraiek jan behar dutena ekoizteko gai izan daitezkeen lurra prestatzearen. Era berean, oso zaila izango zen ikasleei azaltzea zer lortu nahi dugun. Haurrei iristeko moduko zerbait jarri nahi genuen martxan eta mando-liburuzainaren proiektua aurkeztu zigutenean askoz ere egokiagoa iruditu zitzaigun hezkuntza eta kultura uztartzaren dituelako. Bestetik, urte bete burutze moduko zerbait izan behar zuten haurrek proiektua aurre-

ra doala ikusi behar baitute, horretarako mandoak eta liburuak erosi dugu».

Bestetik, orain martxan duten proiektua hemengo 50 familiak, hango familiekin harreman zuzenetan jartzearena da. Noizean behin, elkarri gutunak idatziko dizkiote, argazkiak bidali... ikasleen eta irakasleen arteko adiskidetasuna sendotzeko asmoz. Bi aldeak, aberaste-ko nahiarekin, zenbait ekintzetan elkar lanean ariko dira. «Ikusi beharko da zenbat familia dauden prest elkar trukatean parte hartzen hasteko. Hemengo familia bat, hango batekin jarriko da harremanetan esperientziak elkar trukatzeko». Gurasoek seme-alabekin bidaltzen dituzten oharren bidez jasotzen dute proiektuaren berri. Aldiz, ikasleek ikastetxean jasotzen diren informazioa, Kolonbiatik bidalitzeko argazkien eta bideoen bitartez.

Hau guztia, aukera ona da pobrezian bizi diren ikasleei laguntza emateko eta beste mundu batzuk posible direla ikasteko. Gainera, senidetzea ez da denborarekin ahultzen den errealitatea, indartzen dena baizik.

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.

Anoeta. Harrizko baserrian etxebizitza. Berritzeko, 90m2koa.

Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.

Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai.

Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.

Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.

Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra eta abeltzaintzarako ustiatzarekin.

Lizartza. 900m2ko bi modulo salgai.

Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarri.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi

gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoak alokairuan edo salmentan.

Tolosa. San Frantziskoko gela bakarreko etxebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.

Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai Zaballarretan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m2ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.

Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m2ko etxebizitza. Egoera oso onean.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.

Tolosa. Maituna zaharra. Azken garaje ibixki, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Martxoan hasiko dira lanak.

ASTEASU ▶ GIZARTEA

III. Euskal Giroa larunbatean

Ahari proba, zaldi lasterketa edota motozerra erakustaldia izango dira



Harri-jasotzea izango da, eta irekia izango da parte-hartzea. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Hurrengo larunbatean Asteasun III. Euskal Giroa izango da, Andazarrateko parkean. Hau gaixo etxearen oroimenez egingo dute.

11:30ean hasiko da jaia, kirolean oinarri duen jaialdia, hain zuzen. Ahariak izango dira, Joxe Mari Soralezarena eta Joxe Barriolarena; zaldi lasterketa Lontxo Barriolarekin eta Inaxio Izagirrerekin. Zaldi proba ere ikusgarria izango da, Aitor Olarrearekin, eta baita Patxi Alkainen motozerra erakustaldia ere.

Aizkolari gazteak izango dira ere: Flores eta Alkizalete, alegia. Oinen beharra soilik behar dutenak ere ibiliko dira: korrikalariak, hain juxtu. Kasu honetan larunbatean Beñat Arteaga eta J. Eguzkiza *Urniola* izango dira, nor baino nor.

Harri-jasotzaileak eta txingatan ausartzen bada inor, parte-hartzea librea izango da: 75 kiloko harri kubikoa bi minutuko saioan, eta txingak 25 kilokoak. Hauentzat ere sariak izango dira, noski: txanpan botilak eta ardoa lehenengo hiruentzat. Ausartzen dena animatu dadila honetara ere.

ANOETA ▶

XIX. Wu Shu Txapelketan, Indarrakoak «ondo» ibili dira

ERREDAKZIOA

Anoetan jokaturiko Gipuzkoako XIX. Wu shu Txapelketan Indarra eskolako 7 ikaslek saria jaso zuten; horien artean, Ifüigo Peñagarikano izan zen sarituen, 6 aldiz igo baitzen podiumera.

Kadete mailako mutilak behin egin zuen lehenengo, lautan bigarren, eta beste behin, hirugarren.

Nesken artean Beatriz Taboada seniorra formatan, bitan lehenengo izan zen, eta behin bigarren. Alvaro Felipe bitan lehena izan zen, eta beste saritu guztiak Miguel Angel Suarez, Jon Zubeldia, Jon Astiazaran, eta Eneko Hernandez izan ziren.

ANOETA ▶ POLITIKA

Udalean egotearekin, «jaiak herritar guztientzat»

Anoetarrok Auzolanean plataformak, Gazte Asanbladak eta AHT Gelditu! Elkarlanak esan dute

ERREDAKZIOA

Anoetarrok Auzolanean plataformak, Anoetako Gazte Asanbladak eta AHT Gelditu! Elkarlanak prentsaurreko bat eman zuten larunbatean, festen inguruan hartuko duten jarrera azalduz.

4 urte dira Anoetako EAJ-EAK «herritarrok bozkatutako ari muzin egin eta Udala egoera antidemokratikoan osatu zutenetik», urteetan «herriaren alde lanean aritu garen sektore eta azken batean herritarrak baztertuak izan ginen».

«Borondatea izanez gero», diote prentsaurrekoan, «EAJ-EAK eskuan izan dituzte bazterketa egoera tamalgarri hau gainditzeko formulak, baina nahia izan dute errua besteei bota eta Udalaren jabe jarraitu».

«Eskubide urraketa egoera

hau salatze» hasi ziren Udaletik kanpo festa alternatiboak antolatzen, «Udaletik kanporatuak izan ginenez ez geundelako prest Udalarekin batera lan egiteko». Baina «herriaren alde lan egitea da gure asmoa, eta horren adibide dira herriaren egin dugun lana eta bultzatu dugun parte-hartzea».

Zentzu honetan, «gure alde, eskuetan dugun guztia egingo dugu datorren hauteskundeetan herriaren hitza errespetatua izan dadin», eta gainontzeko eragile eta alderdiei ere gauza bera egiteko eskatu zuten.

Zentzu honetan, datozen Anoetako festak hauteskunde- en ondoren ospatuko direnez eta «Udala egoera demokratikoan eratu egoteko aukerak daudenez, Udaletik kanpo sortu dugun dinamika eta herrita-



Prentsaurrekoa egin zuten talde ezberdinetako ordezkariak. HITZA

ren parte-hartzea Udalera bideratzea erabaki dugu», eta hala, «herriko festak antolatzea Udalera gerturatuko gara».

«Badakigu EAJ-EAK ez duela pausorik eman urte hauetan egoera konpontzeko; beraiek ez bezala, gu udal demokratiko, herri bateratu eta herrita-

ren benetako parte-hartzearen alde gaudenez pauso hau ematea erabaki dugu eta festen antolakuntzan parte-hartzaile aktiboak izango gara».

Bukatzeko, herritar orori dei egin zieten festa batzordera gerturatze, denen gustuko festak antolatze.

KULTURA ▶

Ipuin kontalaria Abaltzisketan eta Amezketan bihar

Bihar, Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da Abaltzisketan 17:00etan eta Amezketan 18:15ean, liburutegietan. Galtzaundi euskara taldeak antolatu du.

TOLOSA ▶

Hautesle-errolako zerrendak ikusgai

Tolosan, hautesle-errolako zerrendak jendaurrean jarri-ta egongo dira udaletxe-ko beheko solairuan, hilaren 9tik 16ra. Datoren bat zuzendu nahi izanez gero, erreklamazioa egiteko dokumentazioa beharko da.



Arriautzairen Festa

Arriautzairen Festa-k Tolosa "jate-tse eraldio" bihurtuko da: tolosar sakaldari nagusiek kalera aterako dituzte beren sakaldeko sekretuak eta menu gozo bat prestatuko dute, protagonista nagusi arriautza duela.

943 31 86 08 www.tolosa2015.net/tolosagourmet

Orduetgia

Buhariak: apirilak 5, 6, 7 eta 8

Sartze-ordutgia: 13:30 - 15:00

Afariak: apirilak 6 eta 7

Sartze-ordutgia: 20:00 - 22:00

Lekua: Zerkausia

Hartu lekua:





GAZTELU ▶ KULTURA



Udalak bi gurutze berri jartzeaz gain bat konpondu ditu «herriko ondare kulturala» berreskuratzeko. A. IMAZ

Gurutze berriak, ohitura zaharrak

Herriko «ondare hitstoriko eta kulturalak» berreskuratu nahian, Gaztelutik barrena bidaiatzeko gonbidapena

ASIER IMAZ

Gaztelura gerturatzen zarenean, errepide eskuintan harrizko gurutzeak ikusten dituzu. Ez dira ordea gurutze arruntak; bi berriak dira, koloreak segituan piztu baitu zure arreta, harrigarriena ordea denen amaiera borobila suertatzen zaizu. Ohiko INRI jartzen duenaren aldamean dauden bik berriz, ez dute bururik. Jakinminez herriko alkatearengana joaten zara. Patxi Navasek Tomas Ugarte-mendiak egindako bi gurutze berri jarri dituztela aipatzen dizu, «alboratuak zeuden herriko ondare historiko eta kulturalak» mantentzeko helburuarekin egin dutela lan hori esaten dizu. «Beste bat ere berriu dugu. Azken berrikuntzak orain dela bi urte egin genituen

auzolanean, kalbarioa erreku-peratzeko lanen barnean».

Lehen zalantza bat baldin bazenuen, gurutzeen amaiera borobilena, orain kalbarioaren zalantza duzu. Zalantzak sortzeaz gain, alkateak argibideak ere eman dizkizunez, herrian bertan bizi den Tomas Ugarte-mendia eskultorearekin hitzegin duzu. Interes handiz mintzatzen zaizu, baina galderen erantzuna elizaren inguruan aurkitzea gomendatzen dizu. Horrela egiten duzu eta Ibarra-ko apaiza den Emeterio Sorazurekin amaitzen duzu hizketan.

Gaztelun entzun duzun kalbario hitzaz galdetzen diozu lehenik, konfidantza irabazteko. «Gurutze bidea da» erantzuten dizu, eta ondoren, «Gaztelun orain gurutzeak dauden lekuan, lehen Santa Kruz ermita

zegoen. 1647. urtean eraiki zuten. Aldamenean erromesen aterpetxea eta seroraren etxea zeuden. Serora ermitaren zain-tzailea izateaz gain, kanpaiak jotzearen arduraduna zen. Ostiralero 15:30ean 14 aldiz jotzen zuten kanpaia, astiro-astiro. Herritarrek orduan kanpai bakoitzean Jesusen nekealdi bat gogoratzen zuten. Guztira 14, heriotzaren aurretik egin zituen ingururatu omen zitekeen, tradizioaren arabera. Lehen Ernioiko kalbarioa egiten zuenari adibidez, bekatu handiak izango zituelako egiten zuela esaten omen zen».

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Maiatzaren 15ean amaituko da 33 areako etxebizitzaren zozketan parte hartzeko epea



Lizarain zerrategia zegoen eremuan joango dira etxebizitzak. I. GARCIA

A. IMAZ

Zizurkilgo Udalak herriaren egingo diren babes ofizialeko 33 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko baldintza pleguak eskuragarri jarri ditu. Izena emateko epea maiatzak 15ean amaituko da eta udaletxean, www.zizurkil.com edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lor daitezke baldintzak.

Eraikiko diren etxebizitzak

70 eta 90 m² bitartekoak izango dira. Bi edo hiru gelakoak eta bainugela bakarrekoak edo bikoak izango dira.

Behin behineko lehen zerrenda egin eta gero, Zizurkilgo Udalak datuak egiaztatzen prozesuari ekingo dio. Honen ondorioz iritertzen den zerrenda, udaletxeko informazio panelean jarriko da eta erreklamatzeko hamabost egun egongo dira.

IBARRA ▶

Mujika sei segundogatik kanporatu dute

Jexux Mari Mujikak Urrezko Aizkoran oso itxura ona eman zuen igandean Lezaunen. Lehen Mailako Azpilikuetaren aurka sei segundogatik galdu zuen arren, «gustura» azaldu zen eginiko lanarekin, izan ere, azken proban nagusi izan zen.

IBARRA ▶

Oporraldian, gaztetxoentzako programa

Apirilak 10etik 13a bitartera Ibarra-ko Kultura eta Gazteria Batzordeak haurrei zuzendutako programazioa aurkeztu du. Txotxongilo, magia eta antzerki emanaldiak egongo dira Kultur Etxean egun horietan, goizero 11:30ean hasiko dira.

hilberria ▶

Luzia Agirre Maiza

(Joxe Mari Bikuñaren alarguna)

Atzo hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Haren anima zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; seme-alabak: Joxe eta Martina Barandiaran, Maria Jexus, Mari Karmen eta Xabier Barandiaran, Jexus eta Begoña Munduate, Joxe Manuel eta Julia Maiso, Jabier eta Mari Ixabel Auzmendi, Joxe Antonio, Mari Axun eta Joxe Manuel Etxeberria; koinata: Axun Murua; bilobak, birlobak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahai-deek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MARTIN DEUNAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Okarizti baserria.

ATAUN, 2007ko apirilaren 4a



hilberria ▶

Luzia Agirre Maiza

(Joxe Mari Bikuñaren alarguna)

—Golan bego—

ZURE BILOBAK-BIRLOBAK

Joxe Mari eta Edurne, Gurutz eta Begoña, Josune eta Jon, Iñigo eta Mari Joxe, Xabier eta Inma, Agurtzane, Susana eta Enrique, Iñaki eta Amaia, Jon, Uxue eta Joxe Mari, Nagore, Xabier eta Sara, Elixabet, Iñigo, Telmo, Asier, Nikolas, Unax eta Enzo.

EZ ZAITUGU AHAZTUKO

ATAUN, 2007ko apirilaren 4a



LEITZA ▶ MUSIKA

Satur Eleta Lehiaketaren bigarren edizioan herriko 11 ikasle saritu dituzte

Orotara 8 kategoria ezberdinetan izan ziren sarituak leitzarrak; Joanes Zabaleta Osanbelak eta Olatz Alduntzin Etxetxikiak bina sari eraman zituzten

NAIARA GARZIA

Larunbatean Lekunberriko 31 aretoan eginiko Satur Eleta Lehiaketan 11 izan ziren sarituak suertatu ziren leitzarrak, Joanes Zabaleta eta Olatz Alduntzinek bina sari jaso zituzten arren.

Finalaurrekoak eta gero, hasiera batean parte hartu zuten 80 bat ikasletatik 23 izan ziren Lekunberriko finalera iritsi zirenak. Aralar Musika Eskolako hainbat herritako ikasleak lehiatu ziren larunbatean: Leitza, Goizueta, Lekunberri alde eta Ultzama...

Manex Moreno, Ane Intxausti, Olatz Alduntzin, Lorea Zabaleta, Joanes Zabaleta, Leire Sagastibeltza, Miren Juantorena, Josu Gerra, Zuhaitz Beloki, Ander Perurena eta Maitane Billabona izan ziren larunbatean sariren bat irabazi zuten leitzarrak. Hauetatik, Joanes Zabaleta eta Olatz Zabaletak bina sari jaso zituzten. Orotara, eta kategorio ezberdinak zeudenez, 8



Ane Intxausti leitzarra, larunbatean. HITZA

maila ezberdinetan izan ziren sarituak.

Hala ere, maila bat baino gehiago izan ziren hutsik gelditu zirenak, hau da, parte-hartzaileak izan arren, saririk jaso ez zutenak. Honela, hutsik gelditu ziren sariak hauek izan ziren: 16 urtetik gorako bakarlarrien bigarrena, 12 urtetik gorako bikoteen bigarrena, 8-11 urte bitarteko hirukoteen lehenengo eta hirugarrena eta 12 urtetik gorako laukoteetan, lehenengoa.

Musika Eskolako irakasle eta ikasketa buru den Aitziber Lopetegiren ustez, «orohar maila polita izan da. Ez da saio txarrik egon, baina zorrotz jokatzea erabaki genuen, hau da, lehenengo saria benetan merezi zuenari ematea. Kategorio batean parte-hartzaile bakarra dagoelako maila baxuagoa eskatzea ez da bidezkoa». Epailak, beraz, zorrotzak izan ziren larunbatean. «Lehiaketa batean exijentzia maila altua dela transmititu nahi izan diegu.

Hala ere, bertan aurkezle lanean zebilenak ere azaldu zuten hau gerta zitekeela, beraz, emaitzak ematerakoan bertaratuak jendea ez zen harritu», dio Lopetegik. «Iaz ere gertatu zen».

Beste zenbait herritako parte-hartzaileek ere eraman zuten saririk etxera. Honela, Migel Andueza (Goizueta), Miriam Iriarte (Betelu), Estrella Basterretxea (Iraizoz), Itsaso Legarrea (Urritzola-Galain), Lierni Pellejero (Gaintza), Maddi Sotil (Betelu) eta Saioa Amundarain (Ataio), izan ziren leitzarrez gain, sarituak.

Sariak

Sariei dagokienez, kategorio bakoitzean (bakarlari, bikote, hirukote eta laukote) adinaren arabera lau maila zeudenez, bakarlarrietan, esaterako, lau lehenengo sari eman zituzten. Hauetan irabazleak 100 euro eraman zituen eta datorren urteko matrikula dohainik. Bigarren gelditu zenak matrikulan %60ko beherapena izanen du eta hirugarrenak, %40a.

Bikoteetan, berriz, lehenengoek 120 euro eraman zituzten, hirukoteetan, 150 euro, eta laukoteetan, 160 euro. Hauek guztiak hurrengo urtean matrikula debalde izanen dute. Honetaz gain, bigarren eta hirugarren gelditu zirenek bakarlarrien kategorian jasotako sari bera jaso zuten, hau da, matrikularen beherapena: %60a bigarrenek, eta %40a hirugarren gelditu zirenek.

II. SATUR ELETA LEHIAKETA ▶ SARIAK

BAKARLARIA, 8-9 URTE

- 1. saria.** Migel Andueza Lana (Goizueta). Pianoarekin.
- 2. saria.** Manex Moreno Uharte (Leitza). Pianoarekin.
- 3. saria.** Miriam Iriarte Aizkorbe (Betelu). Pianoarekin.

BAKARLARIA, 10-12 URTE

- 1. saria.** Ane Intxausti Lasarte (Leitza). Akordeoiarekin.
- 2. saria.** Estrella Basterretxea Rodriguez (Iraizoz). Pianoa.

- 3. saria.** Aroia Burgete Mikeo (Lekunberri). Pianoarekin.

BAKARLARIA, 13-15 URTE

- 1. saria.** Olatz Alduntzin Etxetxikia (Leitza). Trikitixa jo zuen.
- 2. saria.** Beñat Pellejero Ayestaran (Gaintza). Akordeoia jo zuen.
- 3. saria.** Lorea Zabaleta Caballero (Leitza). Txistua jo zuen.

BAKARLARIA, 16TIK GORA

- 1. saria.** Joanes Zabaleta Osanbela (Leitza). Bateria.
- 2. saria.** Hutsik gelditu zen, parte-hartzaileak egon arren.
- 3. saria.** Itsaso Legarrea Oiartzun (Urritzola - Galain). Akordeoia.

BIKOTEAK, 12 URTETIK GORA

- ▶ Txikiak ez ziren aurkeztu.
- 1. saria.** Ez zuten banatu.
 - 2. saria.** Leire Sagastibeltza

Arroki eta Olatz Alduntzin Etxetxikia (Leitza). Trikitixa.

- 3. saria.** Miren Juantorena Zuñiga eta Josu Gerra Baraibar (Leitza). Txistua eta pianoa.
- ▶ 16 urtetik gorako bikoterik ez ziren aurkeztu.

HIRUKOTEAK, 8-11 URTE

- 1. saria.** Hutsik.
- 2. saria.** Lierni Pellejero (Gaintza), Maddi Sotil (Betelu) eta Saioa Amundarain (Ataio).

Hiru partaideek txistua jo zuten.

- 3. saria.** Hutsik.
- ▶ 12 urtetik gora ez zen saririk banatu.

HIRUKOTEAK, 12TIK GORA

Ez zen saririk izan.

LAUKOTEAK, 12TIK GORA

- 1. saria.** Hutsik.
- 2. saria.** Zuhaitz Beloki, Ander Perurena (gitarra), Maitane Billabona (baxua), Joanes Zabaleta (bateria). Leitzarrak.

hilberria ▶

Antonia Ponce Calderon

ANDREA

2007ko apirilaren 2an hil zen, 57 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Gauero izkutatzen da eguzkia itsaso aldetik baina zu ez zara aldentuko gure bihotzetik.

Zure alabaren lagunak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizueteta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN, 2007ko apirilaren 4an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Asvinenea kultur elkarteak Poltsikoko antzerki lehiaketa antolatu du. Lanak apirilaren 6rako aurkeztu behar dira Asvinenean (info@asvinenea.com, Zubitxiki 15, 20.150) 30 euro ordainduz. Mila euroko saria dago.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarteak irteera antolatu du hilaren 14rako Xabiererra: Las Campanas bodega, Sos del Rey Catolico, bazkaria Zangozan, Xabier eta Iruñea. Izen-ematea, elkartearen 25 eurotan (27 ez bazkideek).
Tolosa. Haur Liburuaren Eguna dela eta, *Sirenaxoa* ipuinari buruzko erakusketa izango da Haur Liburutegian, ipuinek ikastetxetara egindako marrazkiekin.

Tolosa. Arrautzaren Festa izango da Zerkausian 5etik 8ra: egunero bazkariak eta 6an eta 7an baita afariak ere, eskualdeko jatebeteek emanak 35 eurotan. Izen-ematea, 943 318608 edo erreserba@logika.es helbidean.

Tolosa. Aurtin Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Raku eta Mescalen.

Tolosa. Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du Gredos mendikatera Aste Santurako, Almanzor, La Galana, Meapoco... mendiak igoz. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 telefonon.

Tolosa. Harizpe jubilatutako pentasionista elkarteak Saloura oporraldia antolatu du maiatzaren 27tik



Zinemaz gozatzeko aukera etxeko txikientzat

TOLOSA ▶ Aste Santuko oporraldiaren esperoan da dagoeneko jendea. Haatik, ikasleak dira egun hauekin gehien gozatzen dutenak edo, bederen, oporraldi luzeena dutenak. Egun hauek atsegina izango izan daitezuten Tolosako Udaleko Kultura sailak zinema eskaintza oparora aurkeztu du txikientzat, Leidorren: bihar, 17:00etan *Pepper*

(5-10 urte) filma eta 22:30ean *En busca de la felicidad*. Etzi, 17:00etan *Iratxoen erregea* (7-12 urte) eta 22:30ean *En busca de la felicidad*. Larunbatean 19:30ean eta 22:30ean *Noche en el museo*. Igandean, berriz, 17:00etan *Mozart txakurra* (5-10 urte) eta 19:30ean eta 22:30ean *Noche en el museo*. HITZA

ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa eta erreserbak, egoiztan.
Tolosa. Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plaza) Andorrara irteera antolatu du maiatzaren 7tik 10era. Prezioa: 170 euro (ez bazkideek 175). Informazioa eta izen-ematea elkartearen (943 698330).

ZINEMA

Alegia. Cache (Escondido) pelikula izango da ikusgai Gaztebean. Michael Henekeren lana, 2005ekoa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia, Jose Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Iraulituhinak.
21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Argine Arroio Intxaurren (Tolosa). Gaur 2. urte.
 Muxu bat etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
 Zuriñe Iglesias Sarasola (Ibarra). Gaur 8. urte. Zorionak Eloy eta Ibreberren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5. behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza argazki lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri

ONARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 lagunenentzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan

Bidaia Agentzia bidaide

Erriobeia, 6-behea • 20150 Villabona
 Tel.: 943 692 693
 bidaide@gruposercor.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILA ETA BOTOEMAILA guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira